



ALKIZAKO UDALA

UDALBATZARRAK 2022ko MARTXOAREN 29an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2022ko martxoaren 29an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Concepcion Soria Legua
Unai Sorarrain Urruzola

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Gillermo Jesus Otegi Zubillaga eta Shrabani Aranzabe Pita

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkurako aktan onespena.**
- ✓ 2022ko martxoaren leian egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2020 Ekitaldiko udal aurrekontu orokorraren likidazioaren berri ematea.**
- 5. 2022-KALD-000001-00 Kreditu aldaketaren hasierako onespena.**
- 6. Alkizako herrian dauden zenbait berdegune eta parkeen mantenu zerbitzuaren esleipena hala bada.**
- 7. 2021 urterako udal zergen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 8. “Alkizako herriko proiektua berraztertze prozesu partehartzailea” zerbitzuaren esleipena, hala bada.**
- 9. Danena txirringulari elkarrekin eginiko diru-laguntza eskaera, hala bada.**
- 10. Alkizako kirol batzordearen 2022rako proposamenaren azterketa, hala bada.**
- 11. Iruzuraren aurkako planaren onarpena, hala bada.**



12. Alkizako Erretore Etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza exekuzio proiektuaren onarpena, hala bada.
13. Beste batzuk
14. Mozioak, erreguak eta galderak.

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA

- 2022ko martxoaren lehen ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Concepcion Legua eta Koldobika Jauregi zinegotziak 19.10 orduan bertaratzen dira Udalbatza honetara.

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 07/2022tik 14/2022ra Lehendakari Ebazpena eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

PLASTICOS TECNICOS Y DERIVADOS	355,00
KOMUNIKAZIO BIZIAGOA, S.A.L.	162,00
IZADI LABORATEGIA	152,94
WOLTERS KLUWER	1.080,53
GUREAK MARKETING	8,75
URAK SOLUCIONES TECNICAS	355,74
ORANGE ESPAGNE	217,73
CORREOS	9,73
MAQUELSA	77,69
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	267,70



ALKIZAKO UDALA

IZADI LABORATEGIA	152,94
JUAN JOSE ARREGI	296,21
TOLOMENDI	960,00
GOIENER	318,18
GIPUZKOAKO BELENZALEEN ELKARTEA	90,75
NORTEGAS	36,42
NORTEGAS	620,16
NORTEGAS	468,92
ORANGE	35,27
AKETEGI	32,20
QUIMICA DE MUNGUIA	168,86
ULAHI	53,70
MANUEL MARIA GOROSTIGA	1.100,00

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **7.021,42** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

2021 EKITALDIKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

Ondoren batzarkideei 2021 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorraren likidazioaren berri ematen da, 2022/09 zenbakia duen eta 2022ko martxoaren 14an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

2022-09 DEKRETUA

Udal honen 2021ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2021ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:



ALKIZAKO UDALA

DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2021-12-31n:		89.686,03
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2021-12-31n:		115.996,81
Aurrekontuko zordunak :	90.311,27	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	25.685,54	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2021-12-31n:		69.640,71
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	23.541,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	46.099,71	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		136.042,13
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		136.042,13

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	32.967,39
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-276,61
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	77.361,36
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	110.052,14

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	30.832,01
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	43.667,22



3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):

74.499,23

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

BOSTGARREN PUNTUA

2022-KALD-000001-00 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA

Udala honen 2021 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko 1/2021 kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren bototara jarri eta bertaratuek, aho batez honako hau

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:



ALKIZAKO UDALA

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.141.153.40.01 2022	AGUAZILAREN LAGUNTZAILEA	500,00	402,77	902,77
1 0000.221.330.00.01 2022	KULTUR ETXEKO ARGINDARRA	1.500,00	5.000,00	6.500,00
1 0000.221.330.00.03 2022	KULTUR ETXEA GASA	0,00	440,00	440,00
1 0000.226.337.10.06 2022	Berdintasun ekintzak	1.000,00	1.321,00	2.321,00
1 0000.226.162.00.05 2022	zaborrak biltzeko sistema berria	0,00	7.000,00	7.000,00
1 0000.226.920.00.05 2022	parte hartze prozesua	0,00	6.844,00	6.844,00
1 0000.627.151.00.01 2022	Erretore etxearen proiektu energetikoa	0,00	18.000,00	18.000,00
1 0000.682.920.00.01 2022	Erretore etxeke konponketa lanak	104.359,58	36.500,00	140.859,58
1 0000.480.231.00.01 2022	UKRANIARREI LAGUNTZA	0,00	1.500,00	1.500,00
1 0000.481.231.00.01 2022	Oporrak bakean Tolosaldea Sahararekin	0,00	1.900,00	1.900,00
GUZTIRA		107.359,58	78.907,77	186.267,35

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2022	KREDITU GERAKINA 2021	78.907,77
FINANTZAKETA GUZTIRA			78.907,77

BIGARRENA.- Irargaria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den



ALKIZAKO UDALA

hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedientea behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

SEIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRIAN DAUDEN ZENBAIT BERDEGUNE ETA PARKEEN MANTENU ZERBITZUAREN ESLEIPNEA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako herrian dauden zenbait berdegune eta parkeen mantenu zerbitzuak kontratu bidez esleitzeko beharrean agertu dela Alkizako udala, herri langilearen lan zama oso handia delako.

Lan hauek egiteko Iratze Lorezaintza S.L. enpresari aurrekontu bat eskatu zaio, kontratu txiki baten aurrean agertzen garelako.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Iratze Lorezaintza S.L. enpresari Alkizako herrian dauden zenbait berdegune eta parkeen mantenu zerbitzuak kontratatzeko onespina ematea, urte beteko kontratua izango da eta aurrekontua 4.835,94 euro direlarik.

BOSTGARRENA: Aipaturiko gastuak 2022 aurrekontuetako 1 0000.210.171.00.01 Kontu sailaren kargura egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Iratze Lorezaintza S.L. enpresari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2022 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2022 urterako udal zergen hobari deialdia onestu zela, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, familia ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinaren kasuetan eskatu daiteke, eta Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kasuan, familia ugaria izateagatik eta motorraren arabera eskatu daitezke.



Ikusirik Alkizako Udalak, 2022ko otsailaren 1ean deialdia zabaldu zuela, hobari edo bonifikazio eskaerak egiteko, azken eguna 2022ko otsailaren 28-a izan zelarik.

Ikusirik, goian aipaturiko epean 18 hobari eskaera egin direla, hauetatik, 9 eskaera familia ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta izateagatik, ondasun higiezinaren gaineko zergen, eta 9 eskaera, familia ugaria eta ibilgailuaren motorraren arabera izateagatik, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergen.

Ikusirik, hemezortzi eskaera hauek baldintza guztiak betetzen dituztela aipaturiko hobariak jasotzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zehazten diren zergen hobari eskaera hauek onestea:

TITULARRA	EGITATE ZERGAGARRIA	HOBARIA
I.Z.S.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
A.G.A.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
M.D.A.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
A.M.A.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
A.E.G.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
G.G.A.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
I.U.Z.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
J.G.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
A.M.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
N.B.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
U.O.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
J.G.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
M.A.U.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
I.A.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
I.U. ETA A.S.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
G.G.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
A.E.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
A.B	IBILGAILUAK-IBILGAILU ELEKTRIKOAK	%50

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.



ZORTZIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRIKO PROIEKTUA BERRAZTERTZEKO PROZESU PARTEHARTZAILEA ZERBITZUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du Alkizako herriko proiektua berraztertzeko prozesu partehartzaile bat egiteko zerbitzuak kontratatzea.

Ikusirik, aipaturiko lanak egiteko hiru aurrekontu eskatu direla LAIA INGURUMEN ZERBITZUA, EMUN Euskara eta Berrikuntza soziala eta Izadi 21 enpresenak hain zuzen ere.

Ikusita Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal ez materialik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.



3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000,00€ azpitik dagoelako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: LAIA INGURUMEN ZERBITZUAK ENPRESARI, Alkizako herriko proiektua berraztertzeko prozesu partehartzaile bat egiteko zerbitzuaren kontratua esleitzea 5.656,00€ (BEZa kanpo) diru kopuruan, gastua 227.929.00.07 kontu sailaren kontura “Aholkularitza: Next generation” egingo delarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri LAIA INGURUMEN ZERBITZUA, EMUN Euskara eta Berrikuntza soziala eta Izadi 21 enpresei ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

DANENA TXIRRINDULARI ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik Danena Txirrindularitza Elkarteak eginiko eskaera, non dioen, bailarako gazteekin txirrindularitza jarduera aurrera eramaten dutela, baina jarduera hau aurrera eramateko finantzazioa behar dutela. Horregatik Aiztondo bailarako udaletxeei diru-laguntza egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



LEHENGOA.- Danena Txirrindularitza Elkarteari 500,00 eurotako ekarpena burutzea 2022ko Udal aurrekontuetako 481.340.00.03 Kontu sailaren kargura.

BIGARRENA.- 500,00 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Danena Txirrindularitza Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

ALKIZAKO KIROL BATZORDEAREN 2022RAKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako kirol batzordeak 2022rako proposamen bat aurkeztu duela, ondorengo delarik:

ALKIZAKO KIROL BATZORDEAREN 2022RAKO PROPOSAMENA

Alkizako Kirol Batzordea 2008. Urtean sortu zen. Orduz geroztik, herriko kirol-ekintzak eta aisialdirako hainbat ekimen burutu ditu. Koronabirusak eragindako pandemiaren eraginez, azkeneko bi urteetan Alkizako Kirol Batzordearen jarduera etenda egon da. Orain, ordea, osasun egoerak hobera egin duela ikusita, 2022an gure herrian sustraituta dauden ekintzak berreskuratu nahi ditugu.

Hala nola, hurrengoak dira aurreko burutu nahi ditugun jarduerak:

SAN ISIDROTAKO FRONTENIS TXAPELKETA ETA GINKANA

Aurreikusitako gastua:

Frontenis Txapelketa	
Trofeoak+ txapelak	500-€
Pelotak frontenis	60-€
Ginkana	120 -€
GUZTIRA	680-€

HERRIKO JAIETAKO TOKA TXAPELKETA



Aurreikusitako gastua:

Trofeoak	
Txapelak	
150-€	

HERRIKO JAIETAKO TXIRRINDULARI IGOERA

Aurreikusitako gastuak:

Trofeoak	
Txapelak	
200-€	

HERRIKO JAIETAKO PILOTA TXAPELKETA

Aurreikusitako gastua:

Pelota Txapelketa:	
Pelotak	100 €
Trofeoak+ txapelak	400 €
GUZTIRA	500- €

SAN MARTINETAKO MUS ETA ESKOBA TXAPELKETA

Aurreikusitako gastuak:

Trofeoak	
Txapelak	
250-€	

SAN MARTINETAKO LAU TÉRDIKO TXAPELKETA

Aurreikusitako gastuak:

Trofeoak	
Txapelak	
120-€	

SAN SILBESTRE EGUNEKO LASTERKETA

Aurreikusitako gastuak:

Trofeoak	
----------	--



Txapelak	150-€
----------	-------

AURREIKUSITAKO GASTUAK GUZTIRA= 2050,00-€

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Kirol batzordeak 2022 urterako proposatutako ekintzak eta hauek suposatzen duten gastua onestea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALAREN IRUZURRAREN AURKAKO PLANA ONARTZEA. ERABAKI PROPOSAMENA.

I.- Europako Kontseiluak onartu zuen, 2020ko ekainaren 21ean, NextGeneration EU programa sortzea. Programa hori pizgarri ekonomikora bideratutako tresna da, eta Europar Batasunak bere gain hartutako finantza-arloko neurririk garrantzitsuenetako bat da 2020an COVID-19ak eragindako aurrekaririk gabeko krisiari erantzuteko. Datozen urteetan ere izango ditu ondorioak programa horrek. NextGeneration EU finantza-tresnak, Europako Kontseiluak 2020ko uztailaren 21ean onetsiak, bere baitan hartzen du, elementu nagusi gisa, «Suspertze eta Erresilientzia Mekanismo» bat (hemendik aurrera, SEM): haren helburua Batasuneko estatuetan inbertsioa eta erreformak bultzatzea da, hartara, susperraldi jasangarri eta erresilientea lortzeko, eta, aldi berean, justizia sozialean oinarritutako hainbat erreforma ahalbidetzea, bai maila nazionalean, bai eskumenak transferituta dituzten autonomia-erkidegoekin gobernantza partekatuan.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren bidez ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa da Suspertze Funtsaren muina. Haren helburua da Europar Batasuneko estatuetan inbertsioa eta erreformak bultzatzea, suspertze iraunkorra eta erresilientea lortzeko, eta, aldi berean, Europar Batasunaren lehentasun ekologikoak eta digitalak sustatzea.

II.- Estatuan, irailaren 29ko Agindua HFP/1030/2021, Estatuko Aldizkari Ofizialak, 2021/09/30ko alean argitaratu zuen, aurreko atalean aipatzen diren garapenerako xehetasunak; esaten diren helburua duten funtsen kudeaketari lotutako espedientetan zuzeneko eragina izanik. Hain zuen, iruzurren aurkako plana izatea behartzen du, finantza funtsa hauek erabili ahal izateko.



ALKIZAKO UDALA

III.- EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarteak) betebeharrak honetarako ereduak landu ditu, eta hauek jarraitzen dira. Zinegotziei aurretik dokumentazioa igorri zaie erabaki proposamenarekin.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udalaren iruzurraren aurkako plana, proposatua izan den era berean onartzea.

BIGARRENA: Alkizako Udaleko zerbitzuei planaren berri eman ezagutza eta eraginerako.

HAMABIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO ERRETORE ETXEAN IGOGAILUAREN IPINTZEA ETA IRISGARRITASUN BALDINTZEN HOBEKUNTZA EXEKUZIO PROIEKTUAREN ONARPENA, HALA BADA

Ikusita, Eba Erkizia Brion Arkitektuak, Alkizako Erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntzarako egikaritze proiektua prestatu duela. Bere zenbatekoa BEZ barne 130.055,48 euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Eba Erkizia Brion Arkitektuak, Alkizako Erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntzarako egikaritze proiektua onestea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

13.1. 22. KORRIKARI DIRU-LAGUNTZA

Ikusita 2022 urtean 22. Korrika ospatu behar dela, horretarako dagokion diru-laguntza eskaera egin du AEK-k.



Jakinik 2022ko aurrekontuetan 481.335.00.01 kontu sailean Korrikari diru laguntza emateko 100,00 eurotako diru kopurua jasota dagoela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2022 urtean ospatu behar den 22. Korrikari, 100,00 eurotako diru-laguntza ematea. Gastua 2022ko aurrekontuetako 481.335.00.01 kontu sailaren kargura egingo da.

13.2.HONDAKIN ORGANIKOA BILTZEKO EDUKIONTZI MARROIAN ZER/NOLA BOTA AZALTZEN DUEN SENTSIBILIZAZIO/KOMUNIKAZIO KANPAINAREN ESLEIPENA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du hondakin organiko biltzeko edukiontzi marroian zer/nola bota azaltzen duen sentsibilizazio/komunikazio kanpaina bat egitea, Alaitz Bilbao teknikariak, beharra justifikatzen duen txostenean adierazten duen modura.

Ikusirik, aipaturiko lanak egiteko hiru aurrekontu eskatu direla, Druck, Ortzadar eta Artelatz enpresei hain zuzen.

Ikusita, ekonomikoki aurrekontu onuragarriena ARTELATZ enpresak aurkezturikoa dela.

Ikusita Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal ez materialik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.



En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000,00€ azpitik dagoelako.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: ARTELATZ enpresari, hondakin organiko biltzeko edukontzi marroian zer/nola bota azaltzen duen sentsibilizazio/komunikazio kanpaina bat egiteko kontratua esleitzea 2.931,00€ (BEZa kanpo) diru kopuruan, gastua 226.162.00.05 kontu sailaren kontura “Zaborrak biltzeko sistema berria” egingo delarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Druck, Ortzadar eta Artelatz enpresei ematea.



13.3. HONDAKIN ORGANIKOA JASOTZEKO ETXEETAN BANATZEKO KIT-aren EROSKETA KONTRATUA ESLEITZEA (KUBOTXO AIREZTATUA ETA POLTSA KONPOSTAGARRIAK)

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du hondakin organikoa jasotzeko etxeetan banatzeko kit-aren erosketa egitea, Alaitz Bilbao teknikariak, beharra justifikatzen duen txostenean adierazten duen modura.

Ikusirik, aipaturiko lanak egiteko hiru aurrekontu eskatu direla, PERFYDE, SPORA eta ID-WASTE enpresei hain zuzen.

Ikusita, ekonomikoki aurrekontu onuragarriena ID-WASTE enpresak aurkezturikoa dela.

Ikusita Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal ez materialik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberak kontratu txiki baten aurrean gaude. *HORNIDURA* kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo



requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Hornidura kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000,00€ azpitik dagoelako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: ID-WASTE enpresari, hondakin organikoa jasotzeko etxeetan banatzeko kit-aren erosketa kontratua esleitzea 1.110,00€ (BEZA kanpo) diru kopuruan, gastua 226.162.00.05 kontu sailaren kontura “Zaborrak biltzeko sistema berria” egingo delarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri PERFYDE, SPORA eta ID-WASTE enpresei ematea.

HAMALAU GARREN PUNTUA **MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.20etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

IDAZKARIAK



ALKIZAKO UDALA